



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko uztailaren 11

69. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Legea, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konpromiso berezia har dezan egoera sozial eta kultural behartuan dauden ikasleak eskolatzen dituzten ikastetxeekin. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak nafarrek beren estatusari eta etorkizun politikoari buruz erabakitzeko eskubidea dutela aitortzen du. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da elkarrizketa txanda bat izan dezan Nafarroako alderdi politikoekin, terrorismoa elkarrizketa bidez amaitzearen aldeko apustua egin ahal izateko jarrera adostuak bilatze aldera. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarteratzeko etxebizitzaren 2006ko programa kudeatzeko hitzarmena sina dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza arloan lehenetsunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea balia dezan beti. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nahitaez bete beharreko klausula bat sar dezan fundazio, elkarte nahiz erakunde pribatuekin sinatzen dituen akordio edo hitzarmenetan, horien ordezkariak behartuta egon daitezen, kasuan kasuko erakundeek hala eskatzen dutenean, bertaratu eta eskatu zaizkien argibide eta azalpenak ematera. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza arloko eskaintza publikoa definitu eta bermatu dezan Sarrigurenen, Oitk 3 urtera bitarteko ziklotik hasi eta 18 urtera bitarte. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2008ko Expoari buruzko jarduketa plan bat taxutu eta Legebiltzarrean aurkez dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala arautu dezan pediatrian erabiltzeko farmazia-produktuak doan lortzeko eskubidea. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan mendekotasun egoeran dauden pertsonen banakako txartela. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Konstituzio Auzitegiak funtzionarioen lansariei buruz eman duen epaiari buruzkoa. Erretiratutako galdera (9. or.).
- Galdera, Altsasuko Otik 3 urtera bitarteko ikastetxeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Sarrigurengo bizilagunen aurrematrikulazio eskaerei eta ikasle horiek hartuko dituzten ikastetxei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, berdintasuna eta bateragarritasuna: konpromiso bateratu baterantz esloganaren pean egin den enpleguari buruzko nazioarteko I. biltzarraren kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza nagusiaren web orria oraindik ere gaztelania hutsean egoteko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko ekainaren 29an egindako Osoko Bilkuran, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Legea, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legearen bidez, Nafarroako Foru Komunitateko boluntarioen lana arautu zen, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikuluko 17., 14. eta 18. zenbakiek Nafarroari erabateko eskumena esleitu baitzioten gizarte laguntzaren, aisialdiaren erabilera egokiaren, komunitatearen garapenaren eta hirugarren adinekoen politikaren arloetan.

Aipaturiko legeak boluntarioen entitateei aseguru-poliza bat izenpetzeko betebeharra, besteak beste, ezartzen zien, boluntarioek boluntario lanetan aritzen ziren bitartean jasaten ahal zituzten eritasun arriskuei aurre egiteko.

Foru lege horrek indarra hartu zuenetik izaniko esperientziak direla-eta, boluntarioen entitateek poliza horiek izenpetzerik eta, hortaz, baldintza hori betetzerik ez dutela frogatu da. Beraz, onetsitako araudia ezin da bete.

Hori dela kausa, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat bidali zion Parlamentuari arau

haren aldaketa proposatzeko, batetik, boluntarioen entitateei ezarritako betebeharrak merkatuko benetako aukeretara egokitzeko eta, bestetik, argi uzteko hirugarrenei eragiten zaizkien kalte-galerak ere bere gain hartu beharko dituela estaldurak.

Hala ere, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea hein batean aldatu zuen apirilaren 4ko 4/2006 Foru Legeak boluntarioen eritasunak estaltzeko aseguru bat ezartzera behartzen zituen entitateak berriro ere, nahiz eta, proiektu haren zioen azalpenean adierazi eta Parlamentuak hitzez hitz onetsi bezala, betebeharrak hori betetzea ezinezkoa duten, merkatuan ez baitago horrelakorik estaltzen duen inolako polizarik.

Horregatik, kontuan harturik boluntarioen erakundeek beste testu arau-emaile bat onesteko egin duten eskaera, legearen kontrako egoera batean aritu behar ez izateko, bidezkoa da Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea aldatzea, boluntarioen eritasunak estaltzeko aseguru poliza bat sinatzearen beharkizuna kentzeko.

Artikulu bakarra. Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea aldatzea.

Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legearen 6.3.b) eta 11.2 artikulua aldatu dira. Honelaxe idatzita gelditu dira:

Bat. 6.3 artikulua.

“b) Boluntarioen lanaren zuzeneko ondorioak diren istripu eta kalte-galera arriskuen kontra aseguruak izatea, erregelamenduz ezartzen diren ezaugarri eta diru kopuruen arabera.”

Bi. 11. artikulua.

“2. Aipatu entitateek aseguru-poliza bat izenpetu beharko dute, boluntarioek boluntario lanetan aritzen diren bitartean izaten ahal dituzten

istripu arriskuei aurre egiteko, eta beren jardueraren ondorioz eragin ditzaketen kalte-galerengatik hirugarrenen aurrean erantzukizuna hartzeko.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konpromiso berezia har dezan egoera sozial eta kultural behartuan dauden ikasleak eskolatzen dituzten ikastetxeekin.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2006ko ekainaren 29an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da konpromiso berezia har dezan egoera sozial eta kultural behartuan dauden ikasleak eskolatzen dituzten ikastetxeekin". Erabaki hau jatorria du Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak aurkezturiko mozio batean, 2006ko ekainaren 5eko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konpromiso berezia har dezan egoera sozial eta kultural behartuan dauden ikasleak eskolatzen dituzten ikastetxeekin

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konpromiso berezia har dezan 50 ikasle baino gehiago matrikulaturik dituzten ikastetxeekin, baldin eta egoera sozial eta kultural behartuan dauden ikasleek ehuneko 20 edo gehiago egiten badute. Hala baldin bada, ikastetxe horiek premia bereziko ikastetxetzat hartuko dira.

Premia bereziko ikastetxeekin hartutako konpromiso horiek berekin ekarriko dute, gutxienez ere, baliabide materialen eta irakasleen ohiko ekarpenez gaineko ekarpen gehigarriak, bai eta funtzionamendu normalerako behar dituzten laguntza teknikoak eta giza- eta prestakuntza-laguntzak ere.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak nafarrek beren estatusari eta etorkizun politikoari buruz erabakitzeo eskubidea dutela aitortzen du.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Parlamentuak nafarrek beren estatusari eta etorkizun politikoari buruz erabakitzeo eskubidea dutela aitortzen du".

Legebiltzarrak 2006ko ekainaren 29an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko maiatzaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da elkarrizketa txanda bat izan dezan Nafarroako alderdi politikoekin, terrorismoa elkarrizketa bidez amaitzearen aldeko apustua egin ahal izateko jarrera adostuak bilatze aldera.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da elkarrizketa txanda bat izan dezan Nafarroako alderdi politikoekin, terrorismoa elkarrizketa bidez amaitzearen aldeko apustua egin ahal izateko jarrera adostuak bilatze aldera."

Legebiltzarrak 2006ko ekainaren 29an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2006ko ekainaren 5eko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarteratzeko etxebizitzaren 2006ko programa kudeatzeko hitzarmena sina dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarteratzeko etxebizitzaren 2006ko programa kudeatzeko hitzarmena sina dezan.

mozioa baztertea. Mozio hori 2006ko ekainaren 5eko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza arloan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea balia dezan beti.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza arloan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea balia dezan beti."

mozioa baztertea. Mozio hori 2006ko ekainaren 5eko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nahitaez bete beharreko klausula bat sar dezan fundazio, elkarte nahiz erakunde pribatuekin sinatzen dituen akordio edo hitzarmenetan, horien ordezkariak behartuta egon daitezen, kasuan kasuko erakundeek hala eskatzen dutenean, bertaratu eta eskatu zaizkien argibide eta azalpenak ematera.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da nahitaez bete beharreko klausula bat sar dezan fundazio, elkarte nahiz erakunde pribatuekin sinatzen dituen akordio edo hitzarmenetan, horien ordezkariak behartuta egon daitezen, kasuan kasuko erakundeek hala eskatzen dutenean, bertaratu eta eskatu zaizkien argibide eta azalpenak ematera."

Legebiltzarrak 2006ko ekainaren 29an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko ekainaren 5eko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza arloko eskaintza publikoa definitu eta bermatu dezan Sarrigurenen, 0tik 3 urtera bitarteko ziklotik hasi eta 18 urtera bitarte.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza arloko eskaintza publikoa definitu eta bermatu dezan Sarrigurenen, 0tik 3 urtera bitarteko ziklotik hasi eta 18 urtera bitarte."

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko ekainaren 12ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2008ko Expoari buruzko jarduketa plan bat taxutu eta Legebiltzarrean aurkez dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da 2008ko Expoari buruzko jarduketa plan bat taxutu eta Legebiltzarrean aurkez dezan."

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko ekainaren 12ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala arautu dezan pediatrian erabiltzeko farmazia-produktuak doan lortzeko eskubidea.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala arautu dezan pediatrian erabiltzeko farmazia-produktuak doan lortzeko eskubidea."

Legebiltzarrak 2006ko ekainaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2006ko ekainaren 12ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan mendekotasun egoeran dauden pertsonen banakako txartela.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan mendekotasun egoeran dauden pertsonen banakako txartela."

Legebiltzarrak 2006ko ekainaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2006ko ekainaren 12ko 57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, Konstituzio Auzitegiak funtzionarioen lansariei buruz eman duen epaiari buruzkoa.

ERRETIRATUTAKO GALDERA

Legebiltzarrak, 2006ko ekainaren 29an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak eginiko galdera, Konstituzio Auzitegiak funtzionarioen lansariei buruz eman duen epaiari buruzkoa erretiratu-tzat jotzea. Galdera hori 2006ko ekainaren 12ko

57. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, Altsasuko 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak Altsasuko 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 3ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du Altsasuko 0tik 3 urtera bitarteko ikastetxeari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Udalek badute 0-3 urte bitarteko haurrentzako ikastetxeak eraikitzeke ekimena; beraz, udalek Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren jarduketa baldintzatzen dute, udalei obrak planifikatzea eta egitea dagokielako.

0-3 urte bitarteko haurrentzako udal ikastetxeak egiteagatik Hezkuntza Departamentuak ematen duen dirulaguntza obra bukatu duten udalei esleitzen zaie urteko deialdian ezarritako irizpideei jarraikiz, betiere dirulaguntza hori gehienez obren kostuaren % 65 izan daitekeela kontuan izanik.

Hezkuntza Departamentuak duen informazioaren arabera, Altsasuko Udalak 0-3 urte bitarteko haurrentzako ikastetxe bat eraikitzeke eta abian jartzeko prozesua hasi du.

Gaur egun arte, Hezkuntza Departamentuko teknikariek proiektuari buruzko bi bilera izan dituzte aipatu udalarekin, obra egin behar den orubeak bisitatu dituzte eta orubeen egokitzapenari buruzko txosten bat egin dute. Altsasuko alkateak Hezkuntza Departamentuari ahoz jakinarazi dionaren arabera, udalak, hasiera batez, obren amaiera 2008. urterako aurreikusten du.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 19an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Sarrigurengo bizilagunen aurrematrikulazio eskaerei eta ikasle horiek hartuko dituzten ikastetxeei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Sarrigurengo bizilagunen aurrematrikulazio eskaerei eta ikasle horiek hartuko dituzten ikastetxeei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 3ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Sarrigurenen bizi diren eta aurrez matrikulatu diren ikasleen eskolatzeari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

SARRIGURENEN BIZI DIREN IKASLEEN AURREMATRIKULAZIOA SARE PUBLIKOAN, 2006/2007 IKASTURTERAKO			
Jaiotze-urtea	Eredua	Hezkuntza maila	Eskabide kopurua
2003	A	Hiru urteko haur hezkuntza	8
	G		6
	D		3
		Zati hau, guztira	17
2002	A	Lau urteko haur hezkuntza	1
	G		1
	D		1
		Zati hau, guztira	3
2001	A	Bost urteko haur hezkuntza	4
	G		2
	D		1
		Zati hau, guztira	7
2000	A	Lehen hezkuntzako lehen maila	1
	G		1
	D		1
		Zati hau, guztira	3
1999	A	Lehen hezkuntzako bigarren maila	0
	G		4
	D		0
		Zati hau, guztira	4
1998	A	Lehen hezkuntzako Hirugarren maila	1
	G		1
	D		0
		Zati hau, guztira	2
1997	A	Lehen hezkuntzako laugarren maila	2
	G		1
	D		0
		Zati hau, guztira	3
1996	A	Lehen hezkuntzako Bosgarren maila	0
	G		6
	D		0
		Zati hau, guztira	6
1995	A	Lehen hezkuntzako seigarren maila	0
	G		2
	D		0
		Zati hau, guztira	2
GUZTIRA			47

Hezkuntza Departamentuak Sarrigurenen bizi diren eta 2006/2007 ikasturterako aurrez matrikulatu diren ikasleak Mendillorriko lau ikastetxe publikoetan eskolatzeko asmoa du, hain zuzen El Iago, Mendigoiti, Elorri eta Mendillorri ikastetxe publikoak.

Lau ikastetxe horiek, 2006/2007 ikasturtean, ordutegi bera izanen dute; hori dela eta, Sarrigu-

rendik joanen diren ikasleek guztientzako eskola garraio bera erabiltzeko aukera izanen dute.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 19an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, berdintasuna eta bateragarritasuna: konpromiso bateratu baterantz esloganaren pean egin den enpleguari buruzko nazioarteko I. biltzarraren kostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak berdintasuna eta bateragarritasuna: konpromiso bateratu baterantz esloganaren pean egin den enpleguari buruzko nazioarteko I. biltzarraren kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 2ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du "Berdintasuna eta bateragarritasuna: konpromiso bateratu baterantz" esloganaren pean egin den enpleguari buruzko nazioarteko I. biltzarrak izan duen kostuari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna:

Aipatu biltzarrak 54.313,17 euroko kostua izan du; hona kostuari buruzko informazioa zehaztuta (ez da behin betikoa):

Kontzeptua	Zenbatekoa (eurotan)
Areto eta zerbitzuen alokairua	16.239,08
Txostengileen bidaiak eta egonaldiak	9.222,26
Txostengileen ordainsariak	4.200
Biltzarreko idazkaritza	24.651,83

Aipatu biltzarra martxoaren 30 eta 31n egin zen, Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorio-Baluartean; biltzarrera 300 aditu baino gehiago bertaratu ziren eta nazioarteko eta nazioarteko 24 txostengilek parte hartu zuten.

Bertaratutakoen kopuru handia eta biltzarraren balorazio ona kontuan izanik, datozen urteotan berriro egitea aurreikusten da.

Aipatzekoa da biltzarra Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Enplegu eta Emakume Batzordeak antolatu zuela; batzorde horretan ondokoek dute ordezkariak: UGTK, CCOOK, AMEDNAk, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak, Nafarroako Emakumearen Institutuak eta Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 19an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza nagusiaren web orria oraindik ere gaztelania hutsean egoteko arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza nagusiaren web orria oraindik ere gaztelania hutsean egoteko arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko maiatzaren 2ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera bat egin du Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren web orriari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren web orria gaztelania hutsean dago Hezkuntza Departamentuak bere web orrien estilo eta edukiak bateratzeko eta berrikusteko prozesua oraindik bukatu ez duelako.

Hezkuntza Departamentuaren aurreikuspenaren arabera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren eta Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendaritza Nagusiaren web orriak 2006-2007 ikasturtearen hasierarako behin betiko argitara daitezke, eta edukiak ez dira gaztelania hutsean egonen.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko maiatzaren 22an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Urtebete 43,95 euro	Navas de Tolosa, 1
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	31002 IRUÑA
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	